

ZAPAKOI

BALIO PROPOSAMENA

Gure proposamena takoi bat da. Takoi honen beheko partea gorde daiteke eta zapatila plano bat bihurtu. Gure marka Zapakoia izango da, zapata eta takokia konbinatzen ditugulako.

Konpondu nahi genituzkeen arazoak honako hauek dira:

- Takoiak eramatea behartuta dauden pertsonei bizkarreko arazoak murriztea.
- Orkatilako bihurtura gutxiago gertatzea.
- Erosotasuna areagotzea.
- Prezioari begira, bai gazte zein helduentzat prezio onargarri bat eskaintzea.

Zergatik erosi gure enpresan eta ez lehiakideei?

Gure enpresaren lehiakidea Amazon da. Hobe da km 0 enpresa bati erostea non bere produktuak herritik munduari eskaini nahi dizkion, pertsonen esplotazioa sustatzen duen enpresa bati baino. Honetaz aparte, beste arrazoi batzuk daude gure enpresan erosteko: gure materiala herriko zapata denda txikietatik eskuratuko dugu, komertzio lokala bermatuz eta gure enpresak ez du kutsadura izugarria sortuko, materiala tokiko dendetatik ateratzen delako. Gainera, zapata hauek eskuz eginda daudenez, kalitatea ona izango da pertsona bat dagoelako zapata lantzen eta ez makina bat askotan ez dituela akatsak identifikatzen.


Fisikoki zailtasunak eta **arazoak ekiditeko** aukera izango duzu.

- Eskaileretan eta maldetan (lur eremu ez lauetan) segurtasun handiagoarekin ibiltzeko aukera ematen dugu takokia zapata bihurtuz. Aldi berean, orkatila bihurtzeko aukerak murriztuko dira.
- Ordu asko egoterakoan takoeikin, oinaren azalean zauriak sor daitezke denbora osoan altuera batean egoteagatik.
- Gure produktua eskaintzen duten enpresarik ia ez dago, beraz gure produktua eksklusiboa da.

Gure enpresak arazo hauek ekidin ditu eta gure erosleek erosotasuna aurkitu dute. Takoi guztiak ez dira berdinak izango estilo, kolore eta **modelo ugari** eskaintzen ditugu. Gure bezeroek dendan bertan frogatu eta erosten dituzte zapatak.

Honez gain, **webgune** bat daukagu, hemen takoi mota guztiak bilatu daitezke eta eskaerak egin daitezke. **Kutsadura ekiditeko** eskaerak guneetan banatuko dira, hau da, guneak hiriburuak izango dira. Ez dira eskaerak etxe espezifikoetara banatuko, baina bai hiri hurbilenera. Bezeroek eskaera egindakoan **3 egun** itxaron eta jasotze tokira joan beharko dira.

Takoi enpresek 500€ ingurutako takoiak saltzen dituzte, prezio hauek ez dira onargarriak mota askotako bezeroentzat eta gure Zapakoiek 150-200€ inguruko aurrekontua dute.



Erosotasuna Prezioa Diseinua Berritasuna